CATÁLOGO DEL PAISAJE.

ÁREA FUNCIONAL DE ÁLAVA CENTRAL

PAISAIAREN KATALOGOA.

ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALA

3 DOKUMENTUA.

PAISAIA INTERES BEREZIKO EREMUAK

PAISAIAREN KATALOGOA. ARABA ERDIALDEKO EREMU FUNTZIONALA

Espedientearen kodea: 035SV/2019

2020ko abenduan berrikusia

LANEN ZUZENDARITZA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE, PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Jesús María Erquicia Olaciregui

Lurralde Antolamendu eta Plangintzarako Zerbitzuaren arduraduna

Rafael Sánchez Guerras

Arabako Lurralde Antolamenduko arduraduna

Victoria Azpiroz Zabala

Lurralde Antolamenduko arkitektoa

LAGUNTZA TEKNIKOA

sigmatec MEDIO AMBIENTE

Raquel López Hernández eta Pablo Sánchez Ramos

Koordinatzaileak

Raquel López Hernández, Pablo Sánchez Ramos, Marta Ortiz-Arce Vizcarro; Maria Eugenia López Diez eta Fernando Lampre Vitaller.

Talde teknikoa

Maitena Barrero Irureta

Itzultzaileak

AURKIBIDEA

1 SARRERA 5

2 IDENTIFIKATUTAKO PIBEAK 6

2.1 PAISAIAREN KALITATE ETA HAUSKORTASUN HANDIAREN ONDORIOZ, IKUS BABESARAKO EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEAK 6

2.2 AZPIEGITURA BERDEARI ETA HAREN ZERBITZU EKOSISTEMIKOEI DAGOKIENEZ, PAISAIA NATURALA KONTSERBATZEKO EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEAK 8

2.3 KUDEAKETA-EREDU BATEN BIDEZKO KONTSERBAZIO-EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEAK 9

2.4 ANTOLAMENDU-EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEAK, EGUNGO BALIOEI ETA/EDO ETORKIZUNEKO LURRALDE-DINAMIKEI ERREPARATUTA 10

3 DOKUMENTUAREN EGITURA 10

PAISAIAREN ALDETIK INTERES BEREZIA DUTEN EREMUEN FITXAK

1 SARRERA

Paisaiaren Interes Bereziko Eremuak *(PIBE) heterogeneotasun edo konplexutasun jakin bat duten lurralde-zati gisa definitzen dira, eta, beraz, horiek babesteko, antolatzeko edo kudeatzeko berariazko zehaztapenak edo proposamenak behar dituzte, honako irizpide hauetako baten edo batzuen menpe daudelako: berezitasuna, paisaia arraroaren edo mehatxatuaren tipologia, hauskortasuna, narriadura edo degradazio berezia, biztanleentzako ikusgaitasuna, nortasun-balioa eta/edo ezaugarri bikainak.*

Paisaia-unitateak paisaiaren hurbilketa integralerako pentsatutako esku-hartze unitateak dira, eta paisaiaren babes estentsiboa – Ez murriztailea – bermatzen duten irizpideak ezartzea eragiten dute. Hala ere, unitate bateko elementuen, osagaien edo zatien kokaleku jakin batzuk paisaian garrantzi handia dutelako bereizten dira, eta garrantzi handia dutela uste da; izan ere, beren paisaia-ezaugarriak, pertzepzioarekin eta ikuspenarekin, hauskortasunarekin edo nortasun-gaiekin zerikusia duten alderdiengatik, nortasun propioa ematen diete, kokatuta dauden ingurunean izaera bera duten gainerako kokaguneen aldean. Beraz, PIBEek arreta berezia behar dute, babestu, antolatu edo kudeatzeko, paisaia identifikatu eta ezaugarritzeko garapen teknikoan aztertu ondoren, eta parte hartze publikoko emaitzak aztertu ondoren.

EAEko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeari buruzko 90/2014 Dekretuaren 2. artikuluaren arabera, PIBEen identifikazioa irizpide hauetako baten edo batzuen arabera egiten da:

1) Paisaia arraro edo mehatxatu gisa duen berezitasunagatik, hauskortasunagatik edo adierazgarritasunagatik.

2) Haien narriaduragatik, bereziki hiri-periferiako, hiri- eta landa-trantsizioko, ibaiertzeko edo industriako lurraldeetan.

3) Biztanleentzat oso agerikoak diren eremuak direlako.

4) Eremu funtzionalaren nortasuna eratzen modu erabakigarrian laguntzeagatik.

5) Pertzepzio eta estetika alderdietan ezaugarri bikainak izateagatik, osagai naturalen edo giza osagaien arteko elkarreragin bereziaren ondorioz.

PIBEek, behar besteko garrantzia duten tokiak dira,(1: 25.000) lan-eskalan aurkezteko. Hala ere, xehetasun-eskalan kartografiatuta daude (1: 10.000 gutxienez), udal-tresnetan edo zenbait tresna sektorialetan sartzea errazteko. Oro har, osagai puntualak, linealak edo azalekoak integratzen dituzte, "Osotasun" gisa hautematen direnak beren ingurunearekin, eta, beraz, kudeatu egin behar dira.

Gaineratu behar da paisaia-unitateetarako formulatutako Paisaiaren Kalitate Helburuen eta Planifikazio eta Kudeaketa Proposamenaren proposamenerako berariazko enklabe eta osagai lineal edo puntualak identifikatu eta aurkitu direla, PKH zehatzekin eta horiek lortzeko ekintzekin. Ekintza horiek garrantzitsuak dira PUetan, baina ez dute zertan izan eremu funtzional osoko PIBE. Paisaia-unitate bakoitzerako fitxa berezituetan ez ezik, *Paisaiaren Kalitatearen Helburuak I eta II* planoetan ere agertzen dira.

Lurraldea aztertu ondoren, metodologia aplikatzearen ondorioz (1. eranskina), aplikatutako metodologiak, Paisaiaren Interes Bereziko 40 Eremu identifikatu eta kartografiatu dira. Identifikazioa errazteko, beren PKH zuzendariaren arabera taldekatuta aurkezten dira, eta horrek, aldi berean, proposatutako ekintza nagusien izaera baldintzatzen du.

2 IDENTIFIKATUTAKO PIBEak

Paisaiaren Interes Bereziko Eremuak lau multzo handitan banatzen dira:

- Paisaiaren kalitate eta hauskortasun handiagatik ikus-babeseko ekintzak behar dituzten PIBEak.
- Paisaia naturala kontserbatzeko ekintzak behar dituzten PIBEak, azpiegitura berdeari eta haren zerbitzu ekosistemikoei dagokienez.
- Kontserbazio-ekintzak behar dituzten PIBEak, kudeaketa eredu baten bidez.
- Antolamendu-ekintzak behar dituzten PIBEak, egungo balioei eta/edo etorkizuneko lurralde-dinamikei erreparatuta.

2.1 PAISAIAREN KALITATE ETA HAUSKORTASUN HANDIAREN ONDORIOZ, IKUS BABESARAKO EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEAK

Aparteko guneak edo osagaiak dira, paisaia-balio natural edo kulturalengatik edo ondare-osagai identitario, eszeniko, erlijioso, historiko-kultural edo sinbolikoengatik. Hauskortasun oso handia dute paisaiari begira, batez ere pertzepzioarekin eta ikuspenarekin lotutako alderdiengatik, eta babes-neurri bereziak behar dituzte.

PIBEen proposamena hiru kokapen motatan zehazten da:

- Paisaia-unitate zehatzak, modu integralean proposatuak, kalitate eta hauskortasun balioengatik

  P2 GASTEIZKO MENDIAK/MONTES DE VITORIA BARGA DE ITURRIETA ETA ENTZIA

  P5 ALDAIA eta NARBAIZAKO MENDIAK

  P11 TOLOÑO MENDILERROA/SIERRA DE TOLOÑO

- Paisaia-unitateen mugetan oinarritutako kokaguneak, modu integralean kontuan hartu gabe. Kalitate-unitate bikainak, baina hauskortasun-balio heterogeneoak dituztenak. Hauskortasun handiz ebaluatutako espazioa identifikatu da, eta, beraz, ikuspena babesteko neurri bereziak behar ditu.

  P3 URIBARRI-GANBOA

  P6 TUYO MENDILERROA ETA POBES MENDIA

  P8 GORBEIA

  P9 ELGEAMENDI ETA ALTZANIA

  P10 BADAIA, ARKAMU ETA GIBILLO

- Kultura, natura edo nekazaritza eta abeltzaintzako osagai tradizionalak ardatz dituzten gune bereziak.

  P1 ARABA LAUTADAKO MENDIXKAK

  P4 AÑANAKO GATZAGA

  P7 MATURANA GEBARA

  P12 PORTILLA ETA OCIO MENDILERROA

  P13 OROko HAITZAK ETA URKABUSTAIZ ETA ZUIAKO IRLA-HARIZTIAK

  P14 PRADOKO SAKANA (VIRGEN DE LA PEÑA)

2.2 AZPIEGITURA BERDEARI ETA HAREN ZERBITZU EKOSISTEMIKOEI DAGOKIENEZ, PAISAIA NATURALA KONTSERBATZEKO EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEak

Aparteko kokaguneak edo osagaiak, paisaia-balio naturalak dituztelako; haien ikus-hauskortasuna ez da bereziki handia, batez ere pertzepzioarekin eta ikusgarritasunarekin zerikusia duten alderdiengatik. Kudeaketaren helburua balioak kontserbatzea bada ere, ez dute lehentasunezko babes-neurririk behar.

PIBEen proposamena bi kokapen-motatan zehazten da:

- Paisaia-unitate zehatzak, modu integralean proposatuak, kalitate eta hauskortasun balioengatik

  IV5 JAUDEN ETA SEMENDIAKO MENDIAK

  IV8 KODES MENDILERROA

  IV10 VALDEREJO, GAUBEA/GOBÍA ETA ÁRCENAKO MENDILERROAK

  IV12 LOKIZEKO MENDILERROAK

- Paisaia-unitateen mugetan oinarritutako kokaguneak dira, modu integralean kontuan hartu gabe. Kalitate-unitate bikainak, baina hauskortasun-balio heterogeneoak dituztenak. Bereziki hauskorrak ez diren kokaguneak dira, baina kontserbatzeko neurriak behar dituzte, unitatearen barruan behar dituztenak osatzeko.

  IV1 GORBEIA

  IV2 IZKI ETA GASTEIZKO MENDIAK/MONTES DE VITORIA HEGOALDEKO ISURIALDEA

  IV3 ELGEAMENDI, URKILLA ETA ALTZANIA

  IV4 ITURRIETAKO MENDIAK, ENTZIA ETA MUELASEKO MENDILERROAK MAEZTU/MAESTU ETA CAMPEZO/KAMPEZU

  IV6 BADAIA, ARKAMU ETA GIBILLO

  IV7 AÑANA Y BÓVEDAKO MENDILERROA

  IV9 BERGANZO ETA PAYUETA/PAGOETAKO MENDIAK

  IV11 AÑANAKO DIAPIROA ETA ATALAYAKO MENDIAK, SOMO ETA MONTEMAYOR

2.3 KUDEAKETA-EREDU BATEN BIDEZKO KONTSERBAZIO-EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEak

Paisaia-balioengatik salbuespenezkoak diren kokaguneak edo osagaiak dira, lurralde nortasuna eratzen modu erabakigarrian laguntzen dutenak. Haien balio "gizatiartua" beren izaeraren parte da, eta egoera sozioekonomikoari lotutako aldaketa-dinamika bizi bati lotuta daude. Horrelako PIBEak kontserbatuko badira, paisaia modelatzen lagundu duten jarduerak indartu behar dira, eta berezko kudeaketa bat egin behar da bertan egin daitezkeen jarduerak txertatzeko, paisaiaren izaera ez aldatzearren.

PIBEen proposamena hiru kokapen-motatan zehazten da. Berriz ere, PU identifikatzeko erabilitako metodologiaren ondorioz, paisaia homogeneoen identifikazioan oinarrituta, kokaguneak unitate batekin edo haren zati batekin identifikatzen dira, lurralde-muga berberak erabiliz:

- Modu integralean proposatutako paisaia-unitateak:

  G2 VALLE DE VALDEGOVÍA/GAUBEA BAILARA

  G5 BARRUNDIAKO BAILARA

- Paisaia-unitateen mugetan oinarritutako kokaguneak, modu integralean kontuan hartu gabe. Dinamika sozioekonomikoei dagokienez, eremu heterogeneoak dituzten unitateak dira; horrek eraginik, balioak era desberdinean daude kontserbatuta edota lurralde tentsioak gertatzen dira, paisaiaren ikuspegitik kudeatu beharrekoak:

  G3 KUARTANGOKO BAILARA

  G4 LACOZMONTEKO KORRIDOREA

  G6 ANOTOÑANAKO BAILARA

  G7 OTXANDIOKO BAILARA

  G8 FONTECHAKO BAILARA

- Paisaiari eta zerbitzu ekosistemikoei dagokienez, zenbait gune partikular, nekazaritza eta abeltzaintzako balio tradizional bati eusten diotenak, beste erabilera batzuen aurrean nekazaritza-izaera mantentzeko kudeatu behar direnak:

  G1 VITORIA GASTEIZKO ERAZTUNA

  G9 EBRO IBARRA, JUGALEZ IBAIAREN ELKARGUNEAN (INGLARES)

2.4 ANTOLAMENDU-EKINTZAK BEHAR DITUZTEN PIBEak, EGUNGO BALIOEI ETA/EDO ETORKIZUNEKO LURRALDE-DINAMIKEI ERREPARATUTA

Paisaia antolatzeko esku-hartze berezia behar duten kokaguneak dira. Paisaiaren gaineko inpaktuak jasaten dituzten eta/edo lurralde-tentsio oso handiak jasaten dituzten kokaguneak dira, lurralde-dinamika degradagarriak ekar ditzaketenak. Gainera, baliteke egokitzeko ekintzak behar izatea. Paisaian duten garrantziagatik, antolamendu-neurri bereziak behar dituzte, egokitzeko, hobetzeko edo lehengoratzeko. Lurraldea kudeatzeko tresnaren izaera dela eta, lehentasunezko esku-hartzea behar duten kokaguneak hautatu dira, esku-hartze teknikoa eta sozioekonomikoa bideragarria denean, eta Katalogoa garatzeko unean paisaia integratzeko planen edo proiektuen menpe ez daudenak. Bi PIBE mota identifikatu dira:

- Hobetu daitezkeen inpaktu kaltegarriak dituzten kokaguneak, eta lurralde-tentsio oso handiak jasaten dituzten kokaguneak, lurralde-dinamika degradagarriak ekar ditzaketenak. Ikus-hauskortasun handiko eremuetan kokaturik daudenez, gidalerroak eta neurriak behar dira, gerta daitezkeen garapenen paisaia integrazioa errazteko.

  O1 GASTEIZKO LAUTADAKO HEGOALDEKO SARBIDEA

  O3 N1 KORRIDOREA (AGURAIN/SALVATIERRA)

  O4 N1 KORRIDOREA (SAN MILLÁN/DONEMILIAGA)

  O5 ARABA ERDIALDERAKO SARBIDEA MIRANDA DE EBROTIK

- Inpaktu kaltegarriak dituzten kokaguneak, horiek lotzen diren paisaia-espazioa, hobetu daitezkeen natura-guneak eta paisaiara eta gizartera egokitzeko proposatutako kokaguneak kontuan hartuta.

  O2 ZADORRA MEDIO-SANTA CATALINA

3 DOKUMENTUAREN EGITURA

Paisaia-unitateak identifikatzeko erabilitako definizioa eta irizpide metodologikoak dira 3. dokumentu hau osatzen duten fitxen oinarria edo haria. Honako helburu hauetarako garatu dira:

- Paisaiaren kalitate eta hauskortasun handiagatik ikus-babeseko ekintzak behar dituzten PIBEak.
- Kontserbazio-ekintzak behar dituzten PIBEak, kudeaketa-eredu baten bidez.

- Antolamendu-ekintzak behar dituzten PIBEak, egungo balioei eta/edo etorkizuneko lurralde-dinamikei erreparatuta

Fitxa bakoitzean, identifikatzeko irizpideak eta justifikazioa, dinamika nagusiak eta proposatutako kudeaketa-eredua deskribatzen dira.

Azpiegitura berdeari eta haren zerbitzu ekosistemikoei dagokienez paisaia naturala kontserbatzeko ekintzak behar dituzten PIBE kasuan, karakterizazioa, ebaluazioa eta proposatutako kudeaketa-eredua paisaia-unitateen fitxetan garatzen dira.

Fitxak osatzen dituzten irudietan azaldutako kategorien definizioa, bibliografia eta beste eduki tekniko batzuk 1. dokumentuan (*Eremu Funtzionaleko paisaiaren karakterizazioa eta ebaluazioa*) integratzen dira baita *paisaiaren katalogoaren garapenean aztertutako gakoak eta alderdiak*

VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUNA

G1



VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUNA G1

DEFINIZIOA ETA IZAERA

Mugen justifikazioa: Gasteizko Lautadako PU barruan identifikatutako PIBEa, unitate horrek paisaian duen konplexutasun eta garrantziagatik; izan ere, oso hauskorra da bisualki eta hiriaren hedapen-eremu naturala da bizitegi-garapenean, industrialean, azpiegitura-garapenean eta zuzkiduran. Gune horren kudeaketak eta antolamenduak unitate osoaren pertzepzioari eragiten dio, eta, ziur asko, eremu funtzionalari.

Gasteizko Eraztun Berdeak, hiriaren ertzean, eta harekin lotura estua duen nekazaritza-paisaiaren koroak osatzen duten espazioa da. Hiriaren profila eta aurkezpena konfiguratzen dituen sarrerako atea. Gizarteak asko balioesten duen paisaia da, hiri sistemaren osagarria, eta herritarrei bizi-kalitatea ematen die, ikusmenaz gain.

Barruko muga hiri-paisaiak zehazten du. Era berean, eraztunaren parte ez den hiriaren barruan geratzen da hutsik dagoen lurzorua, udal-plangintzan 'bizilekutzat' jotzen dena, hiri-bilbearen eta industria-bilbearen ertz gisa geratzen dena, bai eta hiri-fatxada eta espazio publikoa berroneratzeko espazio interstizialak ere.

Hegoaldeko kanpoko muga Gasteizko mendien oineko trantsizioak zehazten du (paisaia-unitateetan zehaztutako mugak), eta iparraldekoa, A1eko korridoreak. Nekazaritza-eremu horretako biztanle-kokalekuak bereizi dira. Mendebaldean, Jundizko poligonoarekin bat egiten duena da muga ezartzen duena. Ekialdekoa da Errekabarri errekaren ezkerraldetik Salvadorko hilerriraino banatzen den nekazaritza-bidea.

Nolanahi ere, proposamen irekia da, edozein antolamendu-tresnatan sartu aurretik eztabaidatzeko. Lurraldeen arteko tentsioa nabarmena bada ere, Gasteizko Udalak ekimen eraginkorrak garatu ditu azken hamarkadetan, bai eta paisaia-katalogoaren ikuspegiak lagundu diezaiekeen proposamenak ere, osatzeko eta zabaltzeko. Identifikazioa Ingurumenari buruzko Ikerketa Zentroak hiriko azpiegitura berdeari buruz egindako 'Nekazal Eraztunaren' proposamenean oinarritzen da.

Azalera: 3010 ha.
Udalerria: Vitoria-Gasteiz eta Arratzua-Ubarrundia

Eraztun berdeak hiri-eremua mugatzen du, eta hainbat berdegunek osatzen dute. Berdegune horiek korridore eko-olgetariak dira, eta elementu naturaletan oinarritzen dira, hala nola Zadorrako erriberan edo Salburuako aintziran, bai eta hiri-inguruko parke finkatuetan ere. Nabarmentzekoak dira Olarizu, pagoz (Fagus sylvatica) eta Armentia, erkameztia (Quercus faginea) eta Zabalgana parkeak, aintzira eta belardi multzo bihurtutako antzinako legar zaharberritua, baso sakabanatuak. Zadorra ibaia, Eraztun Berdearen barruan Zadorraren Parkea bezala integratua, KBE izendatuta dago, eta egokitzapen integrala egiten ari dira, bai hidraulikoa, bai ingurumenekoa, bai aisialdikoa. Hainbat fase egin dira, eta aurreikusten da etorkizun hurbilean ibai-parke bat eratzea, korridore ekologiko bat Salburuako hezeguneen eta Zabalganako parkearen artean. Nekazaritza-matrizea Gasteizko mendietatik jaisten diren hainbat errekak zeharkatzen dute. Erreka horiek ibaiertzeko landaretza degradatua dute, eta kasu askotan lizar-ilara batera mugatuta dago (Fraxinus sp), mendilerroaren eta Eraztun Berdearen arteko konektore ekologiko gisa funtzionatzen dute.

Nekazaritza-paisaiaren koroa zereal-zelai homogeneo eta sinplifikatuek menderatzen dute, XX. mendearen bigarren erdiko lurzati-kontzentraziotik nekazaritza-sektorean egin diren eraldaketengatik. Hala ere, trantsizio-funtzio ekologikoari eusten diote, eta eraztun berdearen korridoreak irautea ahalbidetzen dute, nahiz eta inpaktu txikiak aurkitu, hala nola erantsitako eraikinak eta materialak pilatzeko eremuak.

PIBEak definitzen duen beste alderdi bat Gasteiz hiriaren ertzarekiko kontaktua da, Errekaleor, Aretxabaleta, Betoño, Abetxuko, Ihurre, Lopidana, Astegieta, Ali Gobeo eta Jundiz bezalako inguruneekin. Horietako asko 60ko hamarkadan Andaluzia, Galizia, Extremadura eta penintsulako beste lurralde batzuetatik etorritako langileentzat eraikitako langile-auzoak dira, baita hiriko hiri-bilbearen barruan hautematen diren industria-kokalekuak ere. Itxura artifizial horren osagarri, goi-tentsioko hodi elektriko ugarik zeharkatzen dute.

VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUNA G1

DINAMIKAK

XX. mendearen azken laurdenetik Gasteizko hazkundearen presioaren menpe dagoen paisaia da lurzatien mekanizazioa eta kontzentrazioak, bereziki 60ko eta 70eko hamarkadetan, ezpondak, heskai biziak eta ibaiertzeko basoak desagertzera bultzatu zuena, ordura arte aldagaitz mantendu zen labore eta larre nagusien paisaiaren pertzepzioa aldatuz.

Zadorra giza presio handien menpe dagoen ibaia da. Bere uholde lautada nekazaritza erabileretarako eraldatua izan da, bere uren kutsadurari XX. mendeko hiri eta industri aurretentsioek gehitu behar zaiolarik. Mendearen azken laurdenean sentsibilitatea handitzeak paradigma-aldaketa ekarri zuen, inpaktu-arrazoiak irauliz eta ibai-espazioa leheneratzeko lanak eginez, bai ingurumena eta erabilera soziala hobetzeko, bai uholdeen aurrean babesteko. Zadorrarekin batera, nabarmentzekoa da Salburuako Lagunar multzoaren berreskurapena, 90eko hamarkadaz geroztik eraztun berdea garatzeko egin diren jarduketen barruan. Proiektu hori Gasteizko periferia berriro bideratzeko sortu zen, lurralde-garapeneko joerak oinarri ekologikoa duen plangintza fisiko baterantz bideratzen saiatzeko. Behin gauzatuta, paisaia naturalen sareko sistema bat finkatu da (gehienak publikoak), lurralde-izaera handikoa eta balorazio soziala duena.

2019

1945-46

PRESIO NAGUSIAK:

⇨ Bizitegi-, industria-, azpiegitura eta zuzkidura-lurzoruen hazkundea eta garapena.

⇨ Birsailkatzeagatik lurzoruaren balioa urbanizagarri bihurtzeko itxaropena

⇨Plangintzan nekazaritza-lurren baloraziorik eza.

⇨Hurrengo garapenetan eraztuna mugatzea, eta, ondorioz, nekazaritza eta natura-paisaia murriztea eta zatitzea.

⇨Nekazaritzako eredu produktiboaren aldaketak.

⇨Paisaiaren degradazioa, nekazaritza-sektorearekin lotura argirik ez duten edo paisaian loturarik ez duten baina integratu gabeko eraikinak ugaritzeagatik.

VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUNA

G1

DINAMIKAK

2019

1945-46

EBALUAZIOA:

Ahuleziak

- Ikusmen-irisgarritasun handiko paisaia. Ikusmen espazioa eta espazio afektiboa, pertsona kopuru handi baten egunerokotasunaren parte dena, eta, gainera, komunikazioek asko zeharkatzen dutena.
- Nekazaritza-paisaia homogeneoa, ikusmen-hauskortasun handikoa, aberasten duten elementu natural gutxirekin.
- Presio handiko lurzoru urbanizatzailea, non bere nekazaritza-balioa ez duen merezi sailkatzea lurzoru urbanizagarri bihurtzeko potentzialtasunagatik.
- Lehen sektoreko dinamika sozioekonomikoei lotutako egungo paisaia.

Mehatxuak

- Lurraldearen okupazio estentsiboaren mehatxua suspertzea: hiri-garapena, industria-garapena, azpiegitura eta zuzkidura garapena, eraztunari lekua kenduz, urbanizazioko dinamikarekin eta paisaia tradizionalak errespetatzen ez dituzten hiri-inguruko jarduerekin.
- Nekazaritza-paisaiaren degradazioa. Aldaketa nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean, nazioarteko merkatuaren aldaketengatik, eta ondorio hauek izan ditzake:
    - Laboreak areagotzea: lurzatien kontzentrazio berriak eta ibaiertzak, heskai biziak eta ibaiertzeko landaretza kentzea.
    - Nekazaritza eta abeltzaintzako azpiegiturak: nabe handiak, tamaina handikoak, nekazaritzako makinak eta soberakinak gordetzeko, berotegiak eta salbuetsitako beste eraikin batzuk.
    - Nekazaritza eta abeltzaintzari lotuta ez dauden eraikinak eta azpiegiturak ugaritzea. Lurzoru urbanizaezinaren presioa eta okupazio hasiberria eraikuntza barreiatuen bidez.
- Nekazaritza-jarduera bertan behera uztea eta laboreak sastraka bihurtzea, alde batetik, lehen sektoretik eratorritako alderdi sozioekonomikoengatik (erreleborik eza, merkatuko lehiakortasun handia, etab.) eta, bestetik, hiri-garapenerako lurzoruaren balioaren aurrean lehiatzeko aukerarik ez izateagatik.
- Hirira sartzeko etorkizuneko azpiegituren eragina, bereziki AHTarena

Indarguneak

- Administrazioak eta gasteiztarrek finkatutako hirigintza-irizpide jasangarri eta integratzaileak, bizi-kalitatea hobetzeko ekintzak eskatzen dituztenak.
- Nekazaritza-paisaia, kontserbazio-egoera onargarrian.
- Bertako biztanleek asko estimatzen duten paisaia, lurraldearekiko identitate-izaera nabarmena duen eta baliabideen aprobetxamendu jasangarriaren historia luzea duen biztanleria
- Zenbait elementu eta enklabe daude, jarduketak udalerriaz gaindiko edo hiriko lurralde-kudeaketako proiektu berriak zehazteko argumentu-ildoez hornitzea ahalbidetzen dutenak.
- Gasteizko Azpiegitura Berdean integratuta, Eraztun Berdearen espazio osagarri gisa, eta Eraztun Berdearen zati gisa, non dagoeneko birkuperazio-jarduketa garrantzitsuak egin diren, bai ingurumenekoak, bai hiri-baratzetakoak.
- Paisaian funtsezkoak diren kokaguneak babesteko irudiak egotea, hala nola Zadorrako erribera, Natura 2000 Sarean integratuta.

Aukerak

- Azpiegitura berdearen ondoriozko proiektuak zabaltzeak unitate osorako oinarriak ezarriko lituzke. Gasteizko Eraztuna hiri jasangarriaren kontzeptuaren berezko zatia da, beste espazio batzuekin batera, Eraztun Berdea, etorkizuneko Barneko Urtea eta Lur Garaiak bezala ezagutzen dena, hau da, udalerria inguratzen duten mendiak. Horiek guztiek, konektatuta, Gasteizko sare edo azpiegitura berdea osatzen dute.
- European Green Capital 2012 sariak eta Biosphere Responsible Tourism ziurtagiriak honako hauek erraztu ditzakete:
- Titulartasun publikoko nekazaritza jasangarriaren eredu berriak. Nekazaritzako produktu jasangarriak, ekologikoak eta kalitatezkoak balorizatzeko prozesu berriak tokiko merkatuetan.
- Nekazaritza-jarduera berregituratzea, paisaia naturaleko espazioak berreskuratzearekin orekatuta, hala nola ezpondak, ibaiertzak, muinoak eta bide-ertzak. Paisaiaren aniztasuna kontserbatzea eta handitzea ahalbidetzen du, bai eta kalitate ekologikoa eta hiri inguruko trantsizioa hobetzea ere.
- Sarbideak eta hiri-inguruko paisaia hobetzea, hiriaren beraren erakusleiho gisa.
- Paisaia-irizpideak txertatzea nekazaritza eta abeltzaintzako azpiegituren garapenean.
- Balorazio sozial handia Gasteizen nekazaritza-eraztuna ezartzeko udal-jabetzakoak diren landa lur sailekin, nekazaritza eta abeltzaintza ekologikoa eta tokikoa sustatzeko.
- Elikagaien merezimendu-eredu berrietaranzko joera sozialak, ekoizpen, eraldaketa eta kontsumo-zirkuituak laburtzen dituztenak eta autohornikuntza errazten dutenak.
- Paradigma-aldaketa nekazaritza-paisaiaren ikuspegian, elikadura eta gizarte jarduera eta aberastasunaren mosaiko gisa.

PAISAIAREN KALITATE HELBURUAK. PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA JARRAIPEN PROPOSAMENA

Nekazaritza-paisaia kontserbatzea eta hobetzea, eta gizarte, ekonomia eta ingurumen baldintza berrietara egokitzea, foru eta ingurumen-paisaia handitzeko proposatutako zenbait kokagunetan izan ezik.

Oro har, Eraztunaren multzoaren paisaiaren-babesa indartzea proposatzen da. Eraztun berdeak, nekazaritza-paisaiak eta ur-ibilguek osatzen dute Eraztun hori, ekologikoki lotutako espazioak baitira. Hori lortzeko, indarrean dagoen plangintzan 'babeseko' lurzoru urbanizaezin gisa mugatzea proposatzen da, gaur egun urbanizagarri gisa sailkatutako lurzorua izan ezik. Horietan, gomendatzen da haien garapena sustatzea, hemen azaltzen diren PKH guztiak eta ekintzak kontuan hartuta, eta arreta berezia jarriz erriberako landaretzaren konektibitateari eta berreskurapenari. Gainera, horien kalifikazioaz gain, elementuen, funtzioen eta prozesuen karakterizazio zehatza egitea gomendatzen da.

Nekazaritza-paisaia hobetzeko ekintzak

- Lurzatien mugak landareztatzeko plana: oraindik ere irauten duten landaretza naturalaren zatiekin lotzea. (Erreferentziazko dokumentazioa: Gasteizko udalerriko konektibitate ekologikoari buruzko azterlana ", CEA, Vitoria-Gasteiz).
- Nekazaritza-ingurumeneko laguntzak ezartzea, laboreak lurzoru pribatu bihurtzeko, erabilera tradizional eta jasangarri baterantz, non biodibertsitatea handitzeko, akuiferoa errespetatzeko eta babes ekologikoa emateko jardunbideak aplikatuko diren. Nekazaritza-bokazioa duten nabe isolatuen eta eraikin exentuen ikusmen-mailarako partidak erreserbatzea. Gasteizek Nekazaritzako Elikagai Iraunkorreko Estrategia bat du, herritarrek parte hartzeko prozesuaren bidez balioztatua. Estrategia horren bidez, nekazaritza ekologikoko ekoizpenera eta haren kontsumora bideratutako estrategia aplikatu ahal izango da.
- Udalaren lurzati guztiak labore ekologiko eta baratz organiko bihurtzea sustatzea. Erabilera tradizional eta jasangarri baterantz eraldatu nahi ez duten lursailak erosteko udalpolitika sustatzea.
- NPKren pizgarriei eustea biodibertsitatea hobetzeari edo mantentzeari dagokionez, bai eta flora, fauna eta habitatak babesteko erabil daitezkeen nekazaritza-tresna jakin batzuk betetzeari dagokionez ere. Nekazaritza-ingurumeneko laguntzaren gehikuntzei eustea, lurzatietan bioaniztasun-maila handiagoa lortzearen arabera.
- Sakabanatutako urbanizazioarekin edo nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerekin lotutako alderdiak eta eraikinen banaketa arautzea eta kontrolatzea. Paisaian integratzeko zenbait irizpide ezartzea, lizentziak eta baimenak ematerakoan loteslea izango dena (4. dokumentua).

Paisaia naturala kontserbatzea eta zabaltzea, Gasteizko Lautadako unitatearen eta aldamenekoen arteko lotura bermatzeko.

Ekintzak:

- Lehendik dauden zuhaitz-landaretza naturaleko orban guztien edozein aldaketa osorik babestea.
- Eraztun berdearen eta Gasteizko Mendien arteko lotura bermatuko duten bide-mugetako lokarriak birlandatzea, lur-zatien mugak birlandatzearen osagarri gisa. (Erreferentziazko dokumentazioa: Gasteizko udalerriko konektibitate ekologikoari buruzko azterlana ", CEA, Vitoria-Gasteiz).

  Sarbideen inguruan kokatutako partzelen udal-erosketarako politika sustatzea**. Hiri inguruko eremuak bisualki hauskorrak dira**, birmoldatzeko edo espezie nobleak landatzeko edo jatorrizko formazioak lehengoratzeko (hariztiak, lizardiak), bi helbururekin: batetik, trantsizio-paisaia hobetuko duten espazioak sortzea, eta, bestetik, nekazaritza-lurzoru ekologikoan kutsatzaileak sartzea murriztuko duten 'tanpoi' ekotonoak sortzea. Bestalde, "Nobleak" izeneko hostozabalek (intxaurrondoak, zerealak...) interes handia dute jarduera eta alternatiba ekonomiko, ingurumen eta paisai gisa, eta lur horien erosketa ordaintzen lagun dezakete.
- **Uholde-lautadak hobetzea eta egokitzea**, eta berdegune bereziekin lotzea. ES2110010 Zadorra ibaia/Río Zadorra KBEan jasotako neurriak indartzea (35/2015 Dekretua, martxoaren 17koa), Gasteizko mendietatik datozen ur-onduen multzoa Alegria ibaira hedatuta.

  Uholde-lautada leheneratzeko plana, non ibaiertzetako landaretza garatuko den edo baso-laborantza edo nekazaritza-labore integratuetarako erabilerak birdefinituko diren, espazioa paisaian eta ekologian hobetuko dutenak, gozatzea ahalbidetuko dutenak eta uholdeak saihestuko dituztenak. Nekazaritza eta ingurumen laguntzak ezartzea, laboreak eraldatzeko, edo uholde-arriskuko lekuetan dauden lursailak erosteko udalpolitika sustatzea, ibaiertzeko eremua leheneratzeko.

  Ekintza honek, Eraztun Berdea hegoaldetik jarraitzeko etorkizuneko garapena zabaltzen du, Lasarteko antzinako legar-hobien partzelen gainean ibai parke bat sortuz, aintzira diseinuaren oinarriarekin, Zapardiel eta (Arroyo del Batan) Larragorri ibaiaren ur-goraldiak laminatzeko. Ekintza horrek Ibaia eta Esquivel errekak hartzen ditu kontuan. Erreka horiek oso antropizatuta daude Jundizen azpian lurperatuta dauden zenbait errekatan eta azpiegituren pasabideetan.

VALLE DE VALDEGOVÍA/GAUBEA BAILARA

G2

KOKALEKUA

VALLE DE VALDEGOVÍA/GAUBEA BAILARA G2

DEFINIZIOA ETA IZAERA

Mugen justifikazioa: Gaubea/Valle de Valdegovía paisaia-unitatea PIBE gisa identifikatu da oso-osorik, paisaia-balio handia duelako. PUren fitxan, balio ekologiko, ondarezko edo sozialei eta horien kudeaketa ereduari buruzko karakterizazioari eta ebaluazioari buruzko informazioa osatzen da. Fitxa honen helburua PIBE gisa identifikatu izanari balioa ematea baino ez da.

Argazkia Manuel Díaz de Rada.

Nekazaritza eta basogintza paisaia tradizionala, paisaia-balio handikoa, oraindik ere matrize irregular bat duena. Gune horietan, lurraren morfologiara egokitutako partzelen erretikula eta landaretza naturalez inguratutako partzelak dira bailararen hondoko paisaiaren protagonistak, ibaiertzekin batera, balio handiko landa-herriak dauden eremu batean, ondare arkitektoniko desberdinarekin eta paisaia-kalitate handiko beste kultura-enklabe batzuekin. Lehorreko zereal-laboreak baso eremuekin eta sastrakadiekin txandakatzen dira, eta erkameztiak eta karraskak nagusitzen dira muinoetan, eta pinudiak mendilerroekin kontaktuan dauden eremuetan.

Ondo kontserbatutako landa guneen inguruan daude (Acebedo, Basabe, Boveda, Corro, Gurendes, Mioma, Pinedo, Quintanilla, Tobillas, Valluerca, Villanueva de Valdegovía, Gurendes, Villanueva de Valdegovía). Villanañe, Baronatarren Dorrea eta Angostoko komentua osatzen duen kokaleku kulturala nabarmentzen da, baita paisaia sinboliko eta identitarioaren zati den leize eremitikoen multzoa ere. Ezagunenak Pinedo, Corro eta Tobillas leizeak dira. Ermita funtzioa, Corro eta Pinedoren kasuan, XIX. mende hasierara arte egon da indarrean.

Varonatarren Torre-Palacio ikusgarria, XIV. mendeko arkitektura militarraren adibide ikusgarria, Arabako hobekien kontserbatuetako bat da. Hegoaldeko kokagunea, neurri batean, Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Nabarmenen Katalogoan (*Quejoko laborantza-Gurendes a Villanañe-Angosto*) Paisaia Berezi gisa identifikatuta dago. Iparraldea, *Boveda mendilerroan eta Vallespinosako sakonunean dago*.

Balio estetiko, ondare-balio edo identitate-balioei balio ekologikoak eta funtzionalak gehitu behar zaizkie, ur-ibilguetatik, ibaiertzetatik eta korridore ekologikoetatik eratorriak.

Bere funtzioa produktiboa da, eraldaketa dinamika neurrizkoa, nekazaritza eta abeltzaintzako lursailen sarean islatzen direnak, honen gainean azpiegitura berde bat osatzen duten zuhaizti eta belardi ertz multzo bat gainjartzen delarik. Landa-lurzoruan, eraikuntzak ugaritzeko aukera dago, eta horietako asko kontserbatu nahi diren kanon tradizionaletatik urrun daude.

Azalera: 3379 ha.
Udalerria: VALDEGOVÍA/GAUBEA

Ahultasunak: Lehen sektoreko dinamika sozioekonomikoei lotutako egungo paisaia.

Mehatxuak:

- Nekazaritza-paisaiaren degradazioa. Aldaketa nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean, nazioarteko merkatuaren aldaketengatik, eta ondorio hauek izan ditzake:
- Nekazaritza-jarduera bertan behera uztea eta laboreak sastraka bihurtzea, alde batetik, lehen sektoretik eratorritakoak (erreleborik eza, merkatuan eredugarritasun handia izatea, etab.) eta, bestetik, hiri-garapenerako lurzoruak duen balioaren aurrean lehiatzeko aukerarik ez izatea.

Indarguneak: paisaia eta identitate balio handiko nekazaritza paisaia, herriak asko estimatzen duena, eta haren balio bisualak eta ekosistemikoak ezagutzen dituena.

PAISAIAREN KALITATE-HELBURUAK. PLANGINTZA-, KUDEAKETA- ETA JARRAIPEN-PROPOSAMENA

PKH zuzendaria: paisaia oro har kontserbatzea eta hobetzea eta gizarte, ekonomia eta ingurumen-baldintza berrietara egokitzea. Lehen mailako jarduera tradizionala sustatzea, mantentzea bermatuko duten mekanismoen bidez, bai Erdialdeko Araba osoari ematen dizkion paisaia-balioengatik, bai haren funtzio ekosistemikoengatik.

Ekintza nagusiak:

- Sistema tradizionalari eusten laguntzen duten eta erabilera-aldaketak eragozten dituzten politikak. Lurzati sistema babestea eta haren mugak osatzen dituzten osagaiak kontserbatzea dakarten arau esparruak aldatzea. Lurzoru urbanizaezin gisa mugatzea ('babeseko lurzoru urbanizaezina') gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatuta dagoen lurzoru osoa. Inpaktu bisuala eragiten duten alterazio guztiak babestea gomendatzen da.
- Paisaian integratzeko zenbait irizpide ezartzea, lizentziak eta baimenak ematerakoan loteslea izango dena. Lurzoru urbanizaezineko eraikinen ugaritzea zorrotzago arautzea: haien bolumetria, azalera, koloreak eta materialak arautzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako lanak egiteko beharrezkoak direnean.
- Laboreak kontserbatzeko nekazaritza-ingurumeneko laguntzak mantentzea eta handitzea, betiere erabilera tradizionalari eta jasangarriari eusten badiote eta biodibertsitatea handitzeko praktikak aplikatzen badituzte. Lotutako ustiategi txikien lehen mailako jarduera sustatzea.
- NPKren pizgarriei eustea, biodibertsitatea hobetzeari edo mantentzeari dagokionez lortutako emaitzekin, bai eta flora, fauna eta habitatak babestearekin bateragarriak diren nekazaritza-tresna zehatzekin betetzeagatik lortutakoekin ere. Nekazaritza-ingurumeneko laguntzaren gehikuntzei eustea, lurzatietan biodibertsitate-maila handiagoa lortzearen arabera
- Neurriak ezartzea paisaiaren aldetik egokitzeko errentagarritasuna hobetzera eta nekazaritza eta abeltzaintzako praktikak teknologia eta gia berrietara egokitzera bideratutako ekintzak, klima-aldaketara egokitzeko kudeaketa egiteko.
- Lurzatien banaketa fisikoak sustatzea itxitura tradizionalen bidez (heskai naturalak sortzea), helburu hirukoitzarekin: paisaia hobetzea, abeltzaintzako kargak arautzea, dauden baliabideen artzaintza orekatua bilatuz, bazkatutako azaleren kontrol eraginkorra lortzeko eta biodibertsitatea hobetzeko.
- Abeltzaintza estentsiboa eta beste erabilera batzuk sustatzea eta kontserbatzea, paisaiaren zati bizi gisa eta lurralde-kontrol gisa, zerbitzu ekosistemikoak babesteko eta sutearriskua murrizteko.

Nekazaritza eta abeltzaintzaz kanpoko paisaiarako proposatutako ekintzak honako hauek dira:

- Paisaia naturalaren kontserbazioa sustatzea, hori mantentzea beharrezkoa baita PU paisaiarako. Oro har, eraketa bereziak, ibaiertzak eta ur-xaflak herriz herri babestea proposatzen da.

Hauek dira PUn **eraikitako paisaiarako** formulatutako PKH erabakigarrienak:

- Ingurunea babesteko eta kontserbatzeko tresnak eta **landa-guneen** ikusmen pertzepzioa aktibatu eta garatzea.
- Eraikinen birgaitzea sustatzea, eta lurzoru berriaren sailkapena mugatzea (urbanizagarria) hutsik dagoen etxebizitza-parkearen ehuneko bat dagoenean.
- Eraikinen birgaitzea eta hiri-berrikuntza sustatzea, hiri-lurzoru berriaren birmoldaketa baino lehen. Lehendik aurreikusita dagoen lurzoru urbanizagarria ez handitzea gomendatzen da, lehendik dagoen lurzoruaren edukiera agortu arte eta/edo beste indize batzuk erabiliz, hala nola etxebizitza hutsen tasa. Gaur egun urbanizagarria den lurzoruan, hazkundea "iraunkorra" izatea, berezko landa-gunearen eredua zainduz. Edozein eraikin berrik, eraiki nahi den lurraldeko arkitektura kanonak betetzen dituen diseinu bat izan beharko luke, tipologia tradizionalei jarraituz bolumetrietan, materialetan, akaberetan eta elementu arkitektonikoen antolamenduan.
- Kokalekuetako biztanleriari eusteko neurri sozioekonomikoak sustatzea: beharrezkoa da etxebizitzetarako sarbidea erraztera bideratutako plan bat, bai eta tokiko herriei lotutako giza baliabideekin lotutako lan-eskaintza zabaltzea ere, lurraldearen hobekuntzarekin eta babesarekin lotuta.
- Ondare-balio historiko edo sinbolikoa duten osagai guztien kultura-ondarea kontserbatzea eta balioestea, oro har.

Paisaia hobetzeko eta/edo egokitzeko formulatutako PKH erabakigarrienak, paisaia kudeatzeko eta antolatzeko ekintzak eskatzen dituztenak, honako hauek dira (ikus erantsitako irudia):

- Varonatarren Dorrea Jauregia inguruaren antolamendua eta hobekuntza bisuala, gaizki integratutako nekazaritza eta abeltzaintzako nabea dagoelako.

Dokumentuan nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia kontserbatzeko ekintzen eta neurrien proposamena garatzen da.

KUARTANGOKO BAILARA

G3

KOKALEKUA



KUARTANGOKO BAILARA G3

DEFINIZIOA ETA IZAERA

Mugen justifikazioa: Paisaia-unitate homonimoaren barruko tokia, bere balio handiagatik identifikatua, nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia tradizionalaren pertzepzioagatik ezaugarritua eta eraikia, osotasunean balio bisual handiko paisaia gizatiartua osatzen duena. Trantsizio bioklimatikoko espazio horretan, heskaiek, larreen mosaikoak eta landazabal subatlantikoko laborantzek inguratzen dituzten lurzatien antzinako erretikuluaren zati handi bat mantentzen da, eta horien artean landaretza naturaleko basoak tartekatzen dira. Paisaia berezia, partzela-konzentrazio handien aurreko egitura duena, non landa guneak posizio estrategikoetan kokatzen diren, bizimodu tradizionalari argi eta garbi lotutako dinamika eta ondo kontserbatuta dauden. Bailara 'itxi' bat da, non errepideak bere landa guneetara baino ez duen sarbidea: Archua, Arriano, Guillarte, Jokano, Luna, Santa Eulalia, Urbina de Basabe, Uribarri-Kuartango, Villamanca, Zuhatzu Kuartango eta Jokano. Azken batean, itxura subatlantikoa duen paisaia da, trantsizio-klima batean, nekazaritzaren eraldaketa tradizionalari, Vadillo ibaiaren ibaiertzari eta Baia ibaiak egituratzen duen bailararen "beso" nagusiaren ezaugarri diren azpiegitura handien haizeari lotuta. Hori guztia Arkamu mendilerroko kareharrizko ebaki ikusgarrien azpian.

Dagokion Kuartango bailarako unitatearen fitxan osatzen da haren karakterizazioaren eta ebaluazioaren inguruko informazioa, ekologia, ondare edo gizarte balioei dagokienez.

Arabako Lurralde Historikoko Paisaia Berezien eta Gainazalen Katalogoan (PSSA (Basabe - Marinda - Yarto) neurri batean Paisaia Berezi gisa identifikatuta dago.

Azalera: 1.355 ha.

Udalerria: KUARTANGO

Ahuleziak

- Lehen sektoreko dinamika sozioekonomikoei lotutako egungo paisaia.
- Ikusmen irisgarritasuneko eremuetatik urrun egotea.

Mehatxuak

- Nekazaritza-paisaiaren degradazioa. Aldaketa nekazaritza eta abeltzaintzaren sektorean, nazioarteko merkatuaren aldaketengatik, eta ondorio hauek izan ditzake:
- Laboreak areagotzea: lurzatien kontzentrazio berriak eta ezpondak, heskaiak eta ibaiertzeko landaretza kentzea.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako azpiegiturak: nabe handiak, makineria eta nekazaritzako soberakinak gordetzeko handiak, berotegiak eta salbuetsitako beste eraikin batzuk.
- Nekazaritza eta abeltzaintzari lotuta ez dauden eraikinak eta azpiegiturak ugaritzea. Lurzoru urbanizaezinaren presioa eta okupazio hasiberria, eraikuntza sakabanatuen bidez.
- Nekazaritza-jarduera bertan behera uztea eta laboreak sastraka bihurtzea, alde batetik, lehen sektoretik eratorritakoak (erreleborik eza, merkatuan eredugarritasun handia izatea, etab.), eta, bestetik, hiri-garapenerako lurzoruak duen balioaren aurka lehiatzeko aukerarik ez izatea.

Indarguneak

- Nekazaritza eta basogintza paisaia, paisaia eta identitate balio handikoa, biztanleek asko estimatzen dutena, eta haren balio bisualak eta ekosistemikoak ezagutzen dituena.

Aukerak

- Nekazaritza-jarduera berregituratzea, paisaia naturaleko espazioak berreskuratzearekin orekatuta, hala nola ezpondak, ibaiertzak, muinoak eta bide-ertzak. Paisaiaren aniztasuna zerbitzatu eta handitu nahi da, eta kalitate ekologikoa eta hiri inguruko trantsizioa hobetu.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako azpiegituren garapenean paisaia-irizpideak txertatzea.
- Paradigma-aldaketa nekazaritza-paisaia jarduera mosaiko eta elikadura eta gizarte-aberastasun gisa ulertzeko. Nekazaritzako eta basogintzako mosaikoak kontserbatzeko eta hobetzeko jarduketak sustatzea, balio ekologiko handia dutelako. Nekazariak, beren lanarekin, nekazaritza dibertsitatearen zaintzaile ez ezik, horrekin lotutako biodibertsitate basatiaren zaintzaile ere bihurtzen dira.

PAISAIAREN KALITATE HELBURUAK. PLANGINTZA, KUDEAKETA ETA JARRAIPEN PROPOSAMENA

PKH zuzendaria: paisaia oro har kontserbatzea eta hobetzea eta gizarte, ekonomia eta ingurumen-baldintza berrietara egokitzea. Lehen mailako jarduera tradizionala sustatzea, mantentzea bermatuko duten mekanismoen bidez, bai Erdialdeko Araba osoari ematen dizkion paisaia-balioengatik, bai haren funtzio ekosistemikoengatik.

Ekintza nagusiak:

- Sistema tradizionalari eusten laguntzen duten eta erabilera-aldaketak eragozten dituzten politikak. Lurzati sistema babestea eta haren mugak osatzen dituzten osagaiak kontserbatzea dakarten arau esparruak aldatzea. Lurzoru urbanizaezin gisa mugatzea ('babeseko lurzoru urbanizaezina') gaur egun lurzoru urbanizaezin gisa kalifikatuta dagoen lurzoru osoa. Inpaktu bisuala eragiten duten alterazio guztiak babestea gomendatzen da.
- Paisaian integratzeko zenbait irizpide ezartzea, lizentziak eta baimenak ematerakoan lotura izango duena. Lurzoru urbanizaezineko eraikinen ugaritzea zorrotzago arautzea: haien bolumetria, azalera, koloreak eta materialak arautzea, nekazaritzako eta abeltzaintzako lanak egiteko beharrezkoak direnean.
- Laboreak kontserbatzeko nekazaritza ingurumeneko laguntzak mantentzea eta handitzea, betiere erabilera tradizionalari eta jasangarriari eusten badiote eta biodibertsitatea handitzeko praktikak aplikatzen badituzte. Lotutako ustiategi txikien lehen mailako jarduera sustatzea.
- NPKren pizgarriei eustea, biodibertsitatea hobetzeari edo mantentzeari dagokionez lortutako emaitzekin, bai eta flora, fauna eta habitatak babestearekin bateragarriak diren nekazaritza tresna zehatzak betetzeagatik lortutakoekin ere. Nekazaritza-ingurumeneko laguntzaren gehikuntzei eustea, lurzatietan biodibertsitate maila handiagoa lortzearen arabera
- Neurriak ezartzea paisaiaren aldetik egokitzeko errentagarritasuna hobetzera eta nekazaritza eta abeltzaintzako praktikak teknologia berrietara egokitzera bideratutako ekintzak, klima aldaketara egokitzeko kudeaketa egiteko.
- Lurzatien banaketa fisikoak sustatzea itxitura tradizionalen bidez (heskai naturalak sortzea), helburu hirukoitzarekin: paisaia hobetzea, abeltzaintzako kargak arautzea, dauden baliabideen artzaintza orekatua bilatuz, bazkatutako azaleren kontrol eraginkorra lortzeko eta biodibertsitatea hobetzeko.
- Abeltzaintza estentsiboa eta beste erabilera batzuk sustatzea eta kontserbatzea, paisaiaren zati bizi gisa eta lurralde-kontrol gisa, zerbitzu ekosistemikoak babesteko eta sutearriskua murrizteko.

Nekazaritza eta abeltzaintzaz kanpoko paisaiarako proposatutako ekintzak honako hauek dira:

- Paisaia naturalaren kontserbazioa sustatzea, hori mantentzea beharrezkoa baita PU paisaiarako. Oro har, eraketa bereziak, ibaiertzak eta ur-xaflak herriz herri babestea proposatzen da.

Hauek dira PUn **eraikitako paisaiarako** formulatutako PKH erabakigarrienak:

- Ingurunea babesteko eta kontserbatzeko tresnak eta landa-guneen ikusmen pertzepzioa aktibatu eta garatzea.
- Eraikinen birgaitzea sustatzea, eta lurzoru berriaren sailkapena mugatzea (urbanizagarria) hutsik dagoen etxebizitza-parkearen ehuneko bat dagoenean.
- Eraikinen birgaitzea eta hiri-berrikuntza sustatzea, hiri-lurzoru berriaren birmoldaketa baino lehen. Lehendik aurreikusita dagoen lurzoru urbanizagarria ez handitzea gomendatzen da, lehendik dagoen lurzoruaren edukiera agortu arte eta/edo beste indize batzuk erabiliz, hala nola etxebizitza hutsen tasa. Gaur egun urbanizagarria den lurzoruan, hazkundea "iraunkorra" izatea, berezko landa-gunearen eredua zainduz. Edozein eraikin berrik, eraiki nahi den lurraldeko arkitektura kanonak betetzen dituen diseinu bat izan beharko luke, tipologia tradizionalei jarraituz bolumetrietan, materialetan, akaberetan eta elementu arkitektonikoen antolamenduan.
- Kokalekuetako biztanleriari eusteko neurri sozioekonomikoak sustatzea: beharrezkoa da etxebizitzetarako sarbidea erraztera bideratutako plan bat, bai eta tokiko herriei lotutako giza baliabideekin lotutako lan-eskaintza zabaltzea ere, lurraldearen hobekuntzarekin eta babesarekin lotuta.
- Ondare-balio historiko edo sinbolikoa duten osagai guztien kultura-ondarea kontserbatzea eta balioestea, oro har.

Paisaia hobetzeko eta/edo egokitzeko formulatutako PKH erabakigarrienak, paisaia kudeatzeko eta antolatzeko ekintzak eskatzen dituztenak, honako hauek dira (ikus erantsitako irudia):

- Jokanoko sarbidea antolatzea eta ikusmena hobetzea, nekazaritzako nabeak daudelako.

4. dokumentuan nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia kontserbatzeko ekintzen eta neurrien proposamena garatzen da.

LAKOZMONTEKO KORRIDOREA

G4

KOKALEKUA



LAKOZMONTEKO KORRIDOREA G4

DEFINIZIOA ETA IZAERA

Mugen justifikazioa: Izen bereko paisaia-unitatearen barruko tokia, Arkamu, Badaia eta Tuyo mendilerroek eta Cantoblanco eta Olvedo mendiek osatzen duten mendilerroa banatzen dituen depresio korridorea da. Bailara luze eta estua auzolandegi bihurtuta dago, eta herriak (Artaza/Artatza, Barron, Eskota/Axkoeta, Fresneda, Ginea, Karkamu, Ormijana) muino txikietan edo muga egiten duten mendilerroen hegalen hasieran finkatu dira. Korridorearen erdialdea bere balio handiagatik identifikatu da, nekazaritza eta abeltzaintzako paisaia tradizionalaren pertzepzioagatik ezaugarritua eta eraikia, bere osotasunean paisaia-balio handiko paisaia gizatiartua osatzen duena.

